

**GAIA: Idiazabalgo udal eraikinak garbitzeko hiru lanpostu lehiaketa oposizio bidez hornitzeko hautaketa prozesuaren behin betiko emaitza publikatzea, erreklamazioak ebatzi ondoren, eta errebisio medikuari buruzko informazioa**

Goain aipatu hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileak, 2025eko irailaren 10ean egindako bileran, erabaki hau hartu du:

**1- Merituen emaitzei aurkeztutako erreklamazioei ondorengo erantzunak ematea:**

- XXX3273XXek merituen puntuazioa errebisatzeko eskatzen du. .

*.-Lan esperientziari dagokionez, puntuazio ber kalkulatu da*

Lan esperientzia: Kabia 3 urte, 8 hilabete eta 27 egun

Hernaniko udala 4 hilabete eta 17 egun

49 hilabete x 0,2 = 9,8 puntu lan esperientzia.

*.-Formakuntzari dagokionez, lanpostuarekin zerikusia duten formakuntza bakarrik hartzen da kontutan -oinarrien 9.2 artikulua dionaren arabera- eta aurkeztutako ikastaroak ez dute ezaugarri hori betetzen; beraz HE3 eskakizuna soilik hartu da kontutan, 3 puntu emanez.*

**Guztira: 9,8+ 3 = 12,8 puntu**

- XXX9555XX, lan esperientzia ez zaiola puntuatu alegatzen du.

Merituak 2025-07-07an aurkeztu zituen eta meritua aurkezteko epea 2025eko uztailaren 3an bukatzen zen beraz epea kanpo aurkeztu zituen.

Izen emate orrian datuak kontsultatzeko baimena emana zuen eta kontsultatu zitezkeen datuak kontsultatu dira merituen puntuaketa egiteko. Laneko ziurtagiriak ezin dira bide honetatik kontsultatu.

Beraz, ez da alegazioa onartzen.

- XXX7274XXek, puntuazioa errebisatzeko eskatzen du lan esperientzia ez baita zaiola kontutan hartu erreklamazioaren arabera.

Merituak aurkezteko publikazioan lan esperientzia honela ziurtatu behar zela jartzen zen.

*-Administrazio Publikoren bateko esperientzia, har eginiko ziurtagirien bidez egiaztatuko da.*

*-Enpresa pribatuko esperientzia, hark eginiko ziurtagiri bidez egiaztatuko da.*

Berak aurkeztutako merituetan ez daude lan egindako enpresa pribatuen ziurtagiriak, beraz ez dira kontutan hartu.

Administrazio Publikoetako ziurtagiririk ikusi ondoren, lan esperientziaren puntuazio berkalkulatu da. (Aurkeztu diren administrazio publikoko ziurtagirietan, bi administrazioetan batera altan egon den epea, bakartzat hartzen da, puntuazioa eguneka egiten delako)

Lan esperientzia: Abadinoko udala + Itsasondoko Udala= 57 hilabete

57 hilabete x 0,2 = **11,4 puntu**

Formakuntza atelean 5 puntu ditu.

**Guztira: 11,4 +5 = 16,4 puntu.**

Erreklamazioak ebatzi ondoren behin betiko zerrendaren publikazioa egingo da.

## **2. Hiru garbitzaile plazarako behin betiko zerrendaren hurrenkera argitaratzea.**

<b>NAN</b>	<b>LEHEN AZTERKETA</b>	<b>BIGARREN AZTERKETA</b>	<b>MERITUAK</b>	<b>GUZTIRA</b>
XXX4305XX	24,375	41	30	95,375
XXX3884XX	22,125	39	28,5	89,625
XXX4765XX	16,875	42	30	88,875
XXX8330XX	23,125	39	15,7	77,825
XXX5070XX	19,375	38	12,6	69,975
XXX9706XX	15	26	28	69
XXX3273XX	17,25	38	12,8	68,05
XXX4634XX	17	41	10	68
XXX6476XX	22,375	34	9,2	65,575
XXX4255XX	16	44	2	62
XXX7274XX	19,375	24	16,4	59,775
XXX8180XX	18,75	38	3	59,75
XXX7647XX	13,5	42	1,4	56,9
XXX7891XX	14,375	39	3	56,375
XXX3782XX	15	40	1,2	56,2
XXX9555XX	15,625	37	0	52,625
XXX8343XX	15,875	29	3,6	48,475

**3.- Oinarrien 4.d) atalean jasotakoa betetze aldera, XXX4305XX, XXX3884XX eta XXX4765XX NAN zenbakidunek, dagokien mediku-azterketa egitea**

*4. Hautagaien baldintzak eta eskakizunak*

*d) Lanpostuaren berezko eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen edo bateraezina den gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea; hori dagokion mediku- azterketaren bidez egiaztatuko da.*

Behin ebazpen hau publikatuta, Udala hiru pertsona horiekin kontaktuan jarriko da baldintza horren betekizuna ziurtatzeko

Idiazabalen, 2025eko irailaren 10ean

A handwritten signature in blue ink, consisting of a series of loops and flourishes, positioned centrally on the page.

